

opusdei.org

"Mundua kartsuki maitatzea" homilia euskaraz argitaratua escriva.org webgunean

1967ko urriaren 8an, San
Josemariak Eukaristia ospatu
zuen Nafarroako
Unibertsitateko campusean.
Homiliak modu berezian
kondentsatzen du bere
autorearen prediku guztia
bizitza arrunteko santutasunaz.

2024 Mar 7

1967ko urriaren 8an, Meza bat egin zen lehen aldiz aire zabalean, Nafarroako Unibertsitate gaztearen campusean. Ebanjelioa irakurri ondoren, Josemaria Escrivak paper batzuk hartu zituen esku sendoekin. Astiro hurbildu zen mikrofonora eta bere homilia irakurri zuen. Testuari ongi lotu nahi zitzaion; testu landua, destilatua, ia zizelkatua.

Bizitza arrunta, Jaungoikoaren topaleku

“Zuen senide dituzuen gizakiak, zuen gogo-asmoak eta joranak, zuen lana, zuen maite-minak non, han ere izan behar duzue Kristorekin egunero elkartzeko tokia. Santu izan behar dugu lurreko gauza lurrezkoenen artean, Jainkoa eta gizakiak zerbitzatuz”

“Zain dugu Jainkoa laborategian, erietxeko operazio gelan, gudaletxean, unibertsitateko katedran, fabrikan, lantegian,

baserrian, familiako txoko goxoan eta lanaren amaigabeko panoraman. Ondo gogoan izan: badago santu den zer bait, jainkozko zera bat, egoera ohikoenetan gordeta, eta zuetako bakoitzari dagokio zer hori bilatzea.”

“Bide hau besterik ez dago, ene senideok: edota Jainkoa gure bizibide arruntean topatzen dugu, edota ez dugu behin ere aurkituko.

Horregatik esan diezazueket gure garaiak itzuli behar diela bai materiari eta bai itxuraz arrunten diren egoerei beren hasierako zentzu jatorra, beraiek Jainkoaren erreinuaren zerbitzuan jarritz, espiritualizatuz, eta Kristorekin etengabe elkartzeko tresna eta egokiera bihurtuz”.

Ebanjelioa eta Ebanjelio berria bezain zaharra

“Eskritura Santuko doktrina hau, Opus Deiren espiritu muinean bertan kokatzen da eta zuen lana perfekzioz

burutzera eta Jainkoa eta gizakiak
maitatzera eramane behar zaituzte,
zuen eguneroko bizitzaren eginbide
txikienetan maitasuna jarritz,
xehetasunetan gordeta dagoen
jainkozko zera hori bilatuz. Ondo
baino hobeto datoz hemen hizpidera
Gaztelako olerkariaren bertsoak:
*Despacito y buena letra:/el hacer las
cosas bien/importa más que el
hacerlas*: Poliki eta txukun ari zaitez,
egitea bera baino gehiago, ondo
egitea da gauza”.

“Senide maiteok, badirudi zeru-
lurrek, hor, hodeiartzean egiten
dutela bat. Baina ez: benetan zuen
bihotzetan elkartzen dira zeru-
lurrak, zuen bizitza arrunta santuki
daramazuenean”.

**Mende erdi geroago, gizon eta
emakumeek inspirazio iturri
izaten jarraitzen dute mundu
osoan**

Hitz haiek tinko durundi egin zuten
eta askoren bihotzera iritsi ziren.
Mende erdi geroago ere hitz
horiexek inspiratzen dituzte gizon
eta emakumeak mundu osoan,
Jainkoa eguneroko errealitateetan
aurkitzera animatuz. Mons bezala.
Fernando Ocáriz, Prelado del Opus
Dei-k behin esaten ebanez, "Gauza
asko alda daikez, baina guztiok
izango dogu Kristoren bizitza
arrunta eta komuna".

Guillermo Ormazábal eskerr,
proiektu honetan parte hartu duten
beste pertsona batzuekin batera, San
Josemariako homilia hau euskaratu
da eta escriva.org webgunean
argitaratu da. Animatzen zaitugu
irakurri ez baduzu, inspira zaitzan.

.....

kartsuki-maitatzea-homilia-euskaraz-
argitaratua-escriva-org-webgunean/
(2025 Abu 10)